

**B**

BARREN

TOKIKOM

# Kopla kolpeka





Haur hezkuntza



Lehen hezkuntza




Bigarren hezkuntza




Elgoibarko Herri Eskolako Ate Ireki eguna: **Otsailak 4**  
Elgoibar Arreiturre BHIko gurasoentzako bilera irekia  
**otsailaren 2an, 18:30ean Arreiturren**

**AURREMATRIKULAZIOA**  
2012 - 2013

Haur, Lehen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza  
**URTARRILAREN 30etik OTSAILAREN 10era**



**Elgoibarko Herri Eskola**  
Kalamua, 8  
Tel.: 943 74 08 79  
E-posta: [012777aa@hezkuntza.net](mailto:012777aa@hezkuntza.net)



**Elgoibar Arreiturre BHI**  
San Roke, 11  
Tel.: 943 748 397  
E-posta: [www.elgoibarbhi.net](http://www.elgoibarbhi.net)

## Santa Ageda bezperia, egun haundixa

Zapatua egun haundixa izango da gurian. Santa Ageda bezperia, neure eguna eta santa eskekuen bertsuak entzuteko eguna. Urtietan etorri dira hona, eta urte guzti-guztietan háretxi entzuteko zain egon naiz ni, pozik. Hor etortzen dira neska eta mutil, andra eta gizon, basarritar jantzitta, abarka eta guzti, dotore. Bertsuak kantatzen diez, eta neure eguna izaten danez, adarra jotzen die beti, beste ehun urte hartuko dittutela-eta. Aurten, 93 urte egin behar dittut, eta ilusioz nago noiz háretxek etorriko.

Arratsaldian etortzen dira hona, bazkalostian, eta ahal dan onduen hartzen dittugu guk, barriro etorri daittezen. Txikito pare bat hartzen devez, eta kantuan egin ostian, hemen erabiltzen nabe besarkadada eta musuka. Oñ urte bi erretratu bat ere ekarri ziaben, eta hortxe dakagu jarritta, entradan, atiaz kanpotik. Egixa esateko, norberaren egunak beti eragitten dau pixkat bat, baiña halakuekin etortzen diranian, pentsaizu! Estimua haundittan dittugu guk.

Oingo santa eskiak, baiña, ez dauka gure umetakuaren konturik. Oingo santa eskia erraza da. Etor-tzen dira autuetan, irteten dira, kantatzen debe eta sartu autuan berriz, eta aurrera. Txikixa nitzanian ezagutu naban nik santa eskia zer zan. Orduan ez zan gaurko konturik! Han ibilli behar izaten ziran

mendiz mendi. Han etortzen ziran halako tunikak jantzitta, eta ez dakitt nongo kapelekin; xelebrea-xelebre. Ni neu ere ir-tendakua naiz santa eskian, mutil koxkorra nitzala. Kantuan egittearren igual ematen ziguen xemeiko bat eta aguro sartzen genduan zakura, zer zan ikusi gabe. Beste sasoi batzuk ziran. Lukainkak eta abarrak ere kantatzen zittuzten, baiña lukainkak etxerako gordetzen zittuan orduan jendiak. Gero, gerra onduan, egon zan tarte bat etorri ez zirala. Orduan ez zan jolasik, eta ezta umorerik ere. Baiña hárek ahaztu dittugu, beti negarrez ere ezin garalako egon, eta orain hemen egongo gara, zain-zain, noiz gure lagunak etorriko. Ez nabe ez ohian harrapatuko!



Jose Gurrutxaga  
Elgoibarko Garagartza Behekoa baserrikoa

“Nire txanda” atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaituz gurekin harremanetan:  
943 744 112 edo barren@elgoibarkoizarra.com

**“Oingo santa eskiak, baiña, ez dauka gure umetakuaren konturik.  
Oingo santa eskia erraza da”**

III. URTEURRENA

## ALBERTO ORTUETA AZKARRETA



*Nire maitasunak eta Jainkoaren argiak lagun zaitzatela.  
Izan zinen guztiagatik, zauden lekuan zaudela,  
beti izango zara gure bihotzetan.*

Zure seme-alabak, Aitor-“txiki” eta zure Mariajek.

2009ko otsailaren 4an hil zen. Haren oroimenez III. urteurrenako meza izango da, zapatuan, otsailak 4, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokiari. Joango zaretenoi eskerrak alde zurretik.





# Barren

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

E-posta: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)

Publizitatea: ☎ 943 744 112

E-posta: [barren.publi@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.com)

**BARREN**ek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen **NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI** eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitako enrantzukizunik.

COORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi  
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Ainhoa Mendibil HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue KOLABORATZAILEAK Iñigo Lazkano, Anjel Bazterretxea, Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Justo Arriola, Arkaitz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jesus Mari Makazaga, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.800 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

Argitaratzailea:



Laguntzaileak:




EL GOBIERNO LESLEA



MENDAKO UDALA



AIRE, AIRE ET SUAVIDAD



## GUTUNAK



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enrantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak, NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com).

### Larunbat honetan denok Donostiara!

Larunbat honetan urteetan makro proiektu erraldoien aurka borrokan jardun duten eragile sozialek bat egin eta manifestazio bat antolatu dute *Gipuzkoa desberdin baten alde, jendarte eredu aldatu!* lelopean. Gipuzkoan, eredu horren bultzatzaile eta kudeatzaileak ezagunak dira guztiontzat, AHT, Errauskailua, Portua, errepideak... eraikitzea helburu bihurtu dituena eta makro proiektu horien eraikuntza gestio bikainaren ikur gisa saldu nahi izan dutenak. Baina Gipuzkoako herritarrok ez dugu ulertzen behar gehien dutenen aurrean makro-proiektuen defentsa sutsua egitea. Errauskailuaren kasuan bestelako alternatibak badaudela frogatu da, Usurbil, Oiartzun eta Hernanin jarritako atez ateko hondakin bilketa kasu.

Aurreko batean BARRENen agertutako gutun batean nik idatzitakoa diskurtso politiko jakin baten inguruko panfletoa zela idatzi zuen herritar batek. Egia da, itsu-mutu-gor zaudetenentzat idatzitako diskurtsoa baitzen. Politikoa? Noski, makro proiektu erraldoi hauen atzean zer dagoela uste duzu ba? Garbi dago nik idatzitakoak eragina izan duela eta hori ona da. Ezin gara besteek zer egingo duten zain egon. Horrelako gai garrantzitsuen inguruan zergatik ez zaio herriari hitza ematen?

Larunbatean aukera paregabea daukagu. 17:30ean Boulevardean ikusiko gara. Makro-azpiegiturak gelditu!

A. Z. ©

### ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiak identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gazteleraz datorren eskutitzik argitaratuko.



Arkaitz Irureta

Espainiako justiziari buruz berba egin nahi juat gaur. Zarauzko lehengusu *Labi* taleguan dagok, *Xaporra*-rekin batera. Háren delitua: terrorismo-

ari gorazarre egittia. *Gora ETA* esan ei juen manifa batian. Epai-  
ketan, testiguez gain, ertzainek ere horrelakorik ez zebela entzun deklaratu arren, anonimo baten bertsiua siñestia nahiago izan juan epailliak.

Manifa hartan egon ez arren, ez jaukat zalantzarik salaketa faltsua dala (Atutxaren garaietan ere antzekorik bizi izan zan *Y taldeen* gaiñeko gezurrekin).

Azken aldixan manifaren batetara joan den edonork bajakik horrelakorik ez dala entzuten. Frankismuan bezela, biltzeko baimena eskatu behar dok, horrelako kasuetan, baimenaren eskatzailea epaitzeko.

Eta egia izanda ere, hori al dok urtebete bahitzeko arrazoia? Begira Elgoibarko preso politikuekin ere ze injustizia dauden!

### “Biktima guztixei zor diegu errekonozimendua, baiña ez mendekua”

Biktima guztixei zor diegu errekonozimendua, baiña ez mendekua. Nola fida daittezte inkomunikazioan, torturapian siñatutako deklarazioetan, eta Espainiako kuartel eta epaitegixetan egindako kondentetan ez direla errugabiak kartzelatu? Ez direla gezurrak erabilli irriti eta egunkari euskaldunak ixteko? Tendentzia politiko oso bat kartzelatzeko? Norbaiti errua bota eta soilik ETAREN biktimak lasaiarazteko?

Kolosala izan zuan Bilbokua. Eta españolak bittartian bizi osoko kondenetaz berbetan. Minimua dok kartzelan egon biharko ez zirenak sikira bertako kartzelatar gerturatzia!



Justo Arriola

“Espainiako justizia” oximorona dok, Arkaitz, elkarren kontrako zentzua jauken bi berba elkartuta. Zeozer izatekotan zera dok: askatu gabeko X bat, Konstituzioa eta bere zortzigarren artikulu zapaltzaillaren aittetako bat ohean hiltzia bere krimenengaittik erantzun gabe, millaka gorpu bide bazterretan, lapurtutako umetxuak, 18/98 makro-sufrikarixua, bertsiio poliziala eta fiskalen iruzurra, kartzelak gaiñezka, Estatuko terrorista guztixen disimulurik gabeko amnistia biktimen miña errekonozitu biharrik gabe, ehunka hildako eta zauritu, 10.000 inguru torturatu... Boteriak gatazkaren “kontakizuna” bereganatu nahi arren, ez dagok munduan berak eragindako izugarrikeriak estaltzeko laiñ alfonbra.

### “Gasteizen masakratutako langillien odolarekin idatzitako hitza dok Justizia”

Frankismotik heredatutako fikzio higuigarri horri justizia deitzia ere. Esportaziorako inpunitate eredua ere badok. Israelgo Gobernuan dagan ultra-eskumiak hemengo “alderdixen legia” goraipeztiaz gaiñ arabiaren kontra erabiltzia nahi juen, barren. Eta Garzonek euskaldunoi “errugabetasun eskubidia” errespetatu ez, eta oiñ akusatuen aulkittik eskian.

Entzun dok hau? Amaiurren 333.000k ondoeza eragiñ jauen Fragarri eta preso politikuen eskubidien aldeko manifa kolosalakin azken disgustua hartu juan eta gero ia Historixaren zabortegixan murgildu zuan faxista zaharra. Martxoaren hirugarren egunian Gasteizen masakratutako langillien odolarekin espaloi batian idatzitako hitza dok Justizia. Noizko Egixaren Komisioa?



I. URTEURRENA

## JESUS GARAIALDE MUGERZA

2011ko urtarrilaren 31n hil zen, 54 urte zituela.

Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, otsailak 4, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokan.

Joango zaretenoi eskerrak alde z aurretik.



## Otegi “Espainiaren gatibu” dela salatu dute hainbat pertsona ezagunek Logroñoeko kartzela aurrean egindako bilkuran

Otegiaren “delitu bakarra” egoera politiko berria abiaraztea izan dela adierazi dute

**A**rnado Otegiaren egoera salatu eta ezker abertzaleko bozeramaile zandakoa libre lagatzeko eskatu zuten zapatuan 50 bat lagunek Logroñoeko kartzela aurrean egindako bilkuran. Politika, kultura, kazetaritza, kirol, sindikalgintza eta unibertsitate esparruetako jende ezagunak bat egin zuen Arnaldo askatu, politika askatu herri plataformak egindako deialdiarekin. Hantxe ziren, besteak beste: Martin Garitano Gipuzkoako ahaldun nagusia, Ramon Labaien Donostiako alkate ohia, Xabier Mikel Errekondo, Maite Aristegi, Iñaki Antiguiedad eta Rafa Larreina Amaiurreko ordezkariak, Unai Ziarreta (EA), ezker abertzaleko Rufi Etxeberria, Tasio Erkizia, Jone Goirizelaia, Maribi Ugarte-buru, Pernando Barrena eta Loren Arkotxa, Joan Mari Irigoien eta Laura Mintegi idazleak, Xabier Amuriza bertsolaria eta Martxelo Otamendi eta Iñaki Soto BERRIA eta Garako zuzendariak.

Otegi«Espainiaren gatibu» dela salatu zuten. «Haren delitu bakarra izan da gaur



Euskal Herrian dugun egoera berria abian jartzea, gatazkaren konponbiderako euskal gizarteak itzaropenez eta ilusioz hartu duen bidea». Hala, euskal gatazkaren irtenbiderako ahaleginak “blokeatu eta lehertu” nahi izatea leporatu zioten PSOEn gobernari, Bateragune auzian zigortu zituzten bost kideei besarkada bana bidaltzearekin batera. Bate-

ragune auziko epaia «zentsugabea» izan zela azpimarratu zuten: «Beldurra eta bakearen prozesua bideratzeko maila politiko eskasa baino ez du adierazten».

Era berean, atzera begirako politikak atzean lagatzeko eskatu zuen plataformak, eta kezka agertu zuen PPko gobernu berriaren «zurruntasun eta geldotasunagatik».

## Altzolan udaberrian hasiko dituzte N-634 errepideko obrak



Abenduan zituzten hastekoak Altzolako zeharbideko obrak, baina Gipuzkoako Foru Aldundiak jakinarazi du obra horiek udaberri arte atzeratuko direla, Ur Agentziak inguru horretan egin behar dituen lan batzuk tarteko. Elgoibar eta Mendaro artean saneamendua hobetzeko hodi biltzaileak jarri behar ditu Ur Agentziak Altzolan. Hala, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Ur Agentziak erabaki dute errepide zati horretan egin beharreko saneamendu lanak elkarlanean egitea, eta gainerako lanak gerorako lagatzea. Ondorioz, N-634 errepideko lanak udaberrian hasiko dituzte, eta, ondo bidean, uda aldean bukatuko dituzte.

Oinezkoen eta erabiltzaileen segurtasuna hobetzeko hasi behar dituzte obrak Altzolan. Horretarako, espaloiak, zebra-bideak, autobusak gelditzeko zabalgunek eraikiko dituzte, besteak beste. Espaloiak handituta, errepidea estutu egingo da, eta hala, autoak eta gainerako ibilgailuak astiroago pasatuko dira Altzolatik. Modu horretan oinezkoen segurtasuna hobetuko dela uste dute agintariek.



## Izenak **Joxe Idoeta eta Xabier Alberdi**



Joxe Idoetak eta Xabier Alberdik irabazi dute Euskal Herriko mus txapelketako Elgoibarko kanporaketa, eta Lanbroa tabernan lau lagunentzako afaria irabazi dute. Horrez gain, Gipuzkoako kanporaketarako sailkatu dira, eta otsailaren 24ko asteburuan jokatu dute, Seguran. Elgoibarko kanporaketa joan zen zapatuan jokatu zuten, eta zazpi bikotek hartu zuten parte. Ibon Villanueva eta Zigor Bengoetxea sailkatu ziren bigarren.

## Zenbakia **21**

10.000 bizilagun baino gehiago dituzten Hego Euskal Herriko eta Espainiako herrietako bizi-kalitatearen ikerketa egin du Oviedoko Unibertsitateak, eta Elgoibar 21. postuan dago. Nabarmentzekoa da sailkapeneko lehen 50 herrietatik, 19 Euskal Herrikoak direla, eta horietako hamar, gipuzkoarrak.

## Sinadura **Ostalariak eta Sabadell banketxea**

Elgoibarko ostalarien elkarteak eta Sabadell Guipuzcoano banketxeak hitzarmen bat sinatu dute, elkarteko establezimenduen behar finantzariorerantzuteko, bereziki, ekintza profesionalari loturikoak. Martitzenean sinatu zuten hitzarmena Kultur Etxean Esmeralda Zapparoli ostalarien elkarteko presidentek eta Joaquin Aranbarri banketxeko ordezkariak. Sinadura hau elkartearen "sendotze bidean" beste pauso bat izan da, eta indibidualismoak albo batera utziz, talde bezala jardutea da euren asmoa.



Arg.: Aitor

## **Herri Eskolako ate irekiak antolatu dituzte biharko**

Herri Eskolan ate irekien eguna antolatu dute biharko. Egun osoko egitaraua antolatu dute, eta 11:00etan hasiko dira jarduerak. Goizean, *Gure seme alaben heziketa gizartera begira* izeneko hitzaldia eskaniko dute gurasoentzako, eta ondoren, bazkaria egingo dute. Horrez gain, erroneria, pailazoak eta umeentzako jolasak egingo dituzte.

## **Lourdesera irteera antolatu dute otsailaren 11rako**

Otsailaren 11n Lourdeseko Ama Birjinaren eguna dela-eta, Lourdesera irteera antolatu dute. 39,90 euro izango da prezioa, autobus eta bazkaria barne. Interesatuak ondorengo telefonora deitu dezakete informazio gehiago eskuratzeko: 943 740 822.

## **'Maitasun erromantikoaren mitoak' tailerra**

Udaleko Berdintasun Sailak *Maitasun erromantikoaren mitoak* izeneko tailerra antolatu du. Maitasunaren inguruan hausnartzea da ikastaroaren helburua, eta besteak beste, maitasuna askatasunez, osasunez eta berdintasunez bizitzeko irizpideak jorratuko dituzte. Loredi Salegi izango da irakaslea, eta bi saio emango dituzte; bata, otsailaren 25ean, eta, bestea, martxoaren 31n. Herritarren Arreta Bulegoan eman daitezke izena, otsailaren 23a baino lehen.

## **Euskarazko materiala, jaioberrien gurasoentzako**

Euskararen transmisioan eragiteko, Elgoibarko Udaleko Euskarazko Sailak jaioberrien gurasoentzako kanpaina antolatzen du urtero, Euskarazko Biziberritzeko Planaren barruan. Aurten, besteak beste, *Punpalaplan Euskal Jolasen Bilduma* izeneko materiala banatuko du.

# Usadio zaharrari jarraituz, kantuz beteko dituzte bihar bazterrak Elgoibarko eta Mendaroko koplariak

Gaur, ostirala, Elgoibar Ikastolako haurrak irtengo dira kalera, santa eskean

**K**anturako prest daude Elgoibarko eta Mendaroko lagun talde eta abesbatzak. Bihar, lege zaharrari jarraituz, kantuz beteko dituzte bazterrak, makila kolpeek lagunduta. Santa Ageda bezpera izaki, martiri siziliarraren bizitza abestuko dute, eskean irtengo direnek. Elgoibarren, kalez kale ibiliko dira Etxegiña taldekoak koplakantuan, eta basariz basarri Elgoibarko Izarra kultur elkarteak egindako deialdira batzen direnak. Mendaron, berriz, herriko auzo eta baserri gehienak pasatuko dituzte kantuan. Ezta-riak berotu dituzte dagoeneko, eta orain eguraldiak laguntzea baino ez da falta. Meteorologia zerbitzuek eguraldi hotza iragarri dute biharko, baina horrek ez ditu koplariak kikilduko.

Elgoibarko eta Mendaroko eskola umeek gaur ospatu dute santa eskea. Elgoibar Ikastolako haurrak kalez kale ibili dira kantuan, eta gainerakoek euren ikasketa zentroetan aritu dira kantuan. Bihar, Santa Ageda bezperarekin bat eginez, mendarorarrak izango dira eskean irteten goiztiarrenak. 8:15ak aldera batuko dira udaletxe aurrean, eta bildutakoak hiru taldetan banatu eta talde bakoitzak bide bat hartuko du gero. Sahatzu eta Arnoate alderantz abiatuko da taldetxo bat, Gregorio Larrañaga *Mañukorta* bertso-



*Elgoibarko Izarrakoak baserri baserri ibiliko dira kantuan.*

lariarekin batera. Bigarren taldeak Aranerrakako baserriak pasatuko ditu. Asier Lazaro-baster *Agarre* eta Juanito Loiola *Lasalde* ari-tuko dira koplak, eta hirugarren taldea Mendarozabalen barrena ibiliko da, Amaia Agirre eta Aitzol Urain *Bidaburu* bertsoari lagunduaz. Ondoren, eta ohitura den legez, Aizpe gastronomia elkarteak batuko dira guztiak bazkaltzeko. Santa eskean batutako dirua Aingeru Goardakoan auzolanean egin berri dituzten obretako gastuak ordaintzeko izango da.

## Elgoibarren, bi talde

Elgoibarren, 9:00etan irtengo dira Etxegiña taldekoak. Bola-tokian batuko

dira, eta gero bi taldetan egin, eta talde bakoitzak bide bat hartuko du. Hamaike-takoa egiteko elkartuko dira, eta ondoren, 14:00ak aldera, Errosario kalean Salbea abestu ostean, Baltasar gastronomia elkarteak bazkalduko dute denek elkarrekin.

Elgoibarko Izarrarekin batera santa eskean aritzeko izena eman dutenak 10:00etan irtengo dira bihar, eta ahalik eta baserri gehien pasatzen saiatuko dira, orain hogeitau urte hasitako tradizioari jarraituz. Aurten, 37 lagun irtengo dira kantura, orain arteko gehien, eta okerrik ezean, 22:00ak aldera arte jardungo dira koplakantuan eta eskean.



*Gregorio Larrañaga "Mañukorta", Mendaron, iaz, santa eskean.*

## Ageda, emakumeen zaindari

III. mendean bizi izan zen Ageda, Italia hegoaldean. Tradizio katolikoaren arabera, Kintiano gobernadore txundituta geratu zen neskatila gaztearen edertasuna ikusita. Harekin ezkondu nahi izan zuen, baina ezetza eman zion Agedak, bere burua Jainkoari eskainia ziolako. Hala, agintaria sutsu haserretu zen, eta bularrak moztu zizkion mendekuak itsututa. Horregatik izendatu zuen Elizak Ageda andrazkoen zaindari.



**Bizi-kalitatea neurtzeko ikerketa baten arabera, 21. postuan dago Elgoibar Hego Euskal Herriko eta Espainiako herrian artean.**

## Bizitzeko toki ona da Elgoibar?



**Maria Asun Aldabe**  
64 urte, etxekoandrea

Ni behintzat oso ondo bizi naiz Elgoibarren. Eibartik etorri nintzen eta ez nintzateke berriz hara itzuliko. Denok elkar ezagutzen dugu, eta diru gabe denda batera joanez gero ere, badago konfiantza diru gabe noala esateko. Hori da niretzako bizi-kalitatea, bizilagunon harreman eta konfiantza hori.



**Antonio Azpiazu**  
64 urte, jubilatua

Atentziona deitu dit Elgoibar 21. postuan dagoela jakiteak; harritu egin nau, beste batzuk aurretik egongo zirela pentsatzen nuen-eta. Hala ere, merezitakoa dela uste dut. Ondo bizi gara hemen, Donostian bertan baino hobeto. Hango jatetxeak bakarrik falta ditut.



**Mari Jose Leniz**  
52 urte, etxekoandrea

Euskal Herrian dagoen bizi kalitatearen parekorik ez dago beste inon. Eibarren jaiotakoa naiz, eta ezkontzean Mendarora joan nintzen. Kosta zitzaidan hara egitea, baina orain ez nituzke Mendaro eta Elgoibar ezergatik aldatuko. Mendarroarrak eta elgoibartarrak jende irekia eta atsegina dira.



**Jesus Badiola**  
61 urte, jubilatua

Hobea izan zitekeen, baina ona da. Langabezia gutxiago balego hobea. Arrisku bat ikusten dut: erreminta makinarekiko menpekotasuna. Dibertsifikazio gutxi, alegia. Erreminta makina ondo dabilen bitartean, bizi kalitatea ere ona izango da, beste aberastasunik ez daukagu-eta.

## SEMAFOROIA



**Giza Eskubideen parkeko arku oso zikina dago:** "Giza Eskubideen parkeko Muguruza arku lizunez beteta dago, eta garbitzeko beharra duela iruditzen zait. Armarría bera ere beltz beltza dago, eta artelanaren edertasuna iluntzen du. Herriko apaingarriak hobeto zaindu behar direla iruditzen zaigu".



**Txalo bero bat Mugertza krosetako antolatzaileei:** "Aurten ere sekulako lana egin du Mintxeta atletismo taldeak, eta txalo bero bat merezi dute. Ikusleak oso gustura egon gara Mintxetan, eta beste behin ere, maila handiko lasterketa izan dugu herrian. Zailtasunak zailtasun, lan bikaina egin duzue! Jarraitu horrela!".



# UDAL AURREKONTUAK GERRIKOA ESTUTZEKO GARAIA

**12.714.216 EUROKO AURREKONTUA ONARTU DU ELGOIBARKO UDALAK 2012RAKO, 2011KOA BAINO %5 TXIKIAGOA**

EAJ, PSE-EE eta PPren aldeko botoekin onartu zuen joan den eguenean Elgoibarko Osoko Udalbatzarrak 2012rako aurrekontua. Bilduk kontra bozkatu zuen. Joan den urteko aurrekontuarekin alderatuta, %5 txikiagoa izango da 2012. urterako onartutakoa: 12.714.216 eurokoa, hain zuzen ere. Mendaroko Udalak ere onartu zuen 2012rako aurrekontua joan den urteko azarora bukatzeaz zela, baina, inguruko herrietan gertatutakoaren kontrara Mendaroko 2012rako aurrekontua 2011koa baino %1 handiagoa da.

Ainhoa Mendibil Artetxe




Aurrekontua hiru zatitan banatzen da:	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Udala: 12.714.216 euro</li> <li>• San Lazaro Egoitza: 1.393.442 euro</li> <li>• Udal Kirol Patronatua: 1.063.870 euro</li> </ul>
<b>SARRERA AIPAGARRIENAK</b>	
Zuzeneko zergak	2.970.974,00
Transferentzia arruntak	6.806.980,00
Kapital transferentziak	320.600,00
Maileguak	0,00
<b>Sarrerak guztira</b>	<b>12.714.216,00</b>
<b>GASTU AIPAGARRIENAK</b>	
Pertsonal gastuak	3.835.225,82 (% 9,4ko jaitsiera)
Ondasun arruntak eta zerbitzuak	5.035.534,57 (%1,70ko igoera)
Inbertsioak	832.300,25 (%46,4ko jaitsiera)
<i>Hirigintza</i>	
Pilar ikastetxearen eraispena	200.000
Lorito eta Pedro Migel Urruzunoko konponketak	217.224
Landa lurretako lanak	126.000
<b>Gastuak guztira</b>	<b>12.714.216,00</b>


## KONPARAKETA URTEZ URTE

	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012
<b>GUZTIRA</b>	14.344.089,52	16.216.029,91	17.106.661,16	16.861.269,81	14.340.734,39	13.477.135,76	12.714.216,00





## 2012ko INBERTSIOAK




## INBERTSIOEN BEHERAKADA

Aurrekontua estutu beharrak 2012rako inbertsioak murriztea ekarri du; hain zuzen ere, 2011an baino %46,4 diru publiko gutxiago eskainiko zaie 2012an inbertsioei.

Hiru sailen artean banatu da inbertsioei zuzendutako dirua: barne sailari dagokio inbertsioetarako diru partida osoaren %7,48a, Kulturari inbertsioetarako beste %1,18, eta inbertsioei eskainitako gainerako %91,32 hirigintzarako erabiliko du. Hortaz, inbertsiorik gabe geratu dira aurrekontuaren ongizatea, hezkuntza eta hiri-segurtasuna, iaz inbertsio-esparru izandakoak.

Inbertitzea aurreikusten den hirurik sail horien artean hirigintzarako izango du pisu gehien, joan den urtetik hona %47,42ko jeitsiera izan badu ere. Horren harira, hirigintzarako hiru inbertsio nabarmendu beharra dago. Landa lurren konponketari 126.000 euro bideratuko zaizkio, Pedro Migel Urruzunon eta Loriton egingo dituzten lanetan 217.224 euro inbertituko ditu Udalak, eta azkenik, Pilar ikastetxea eraisteko 200.000 euro -horietatik 100.000 Foru Aldundiak jarriko ditu-.

## MENDAROKO UDAL AURREKONTUA 2011KOA BAINO %1 HANDIAGOA



2011ko azaroa amaitzean zela onartu zuen Mendaroko Udala 2012rako aurrekontua, joan den urtean baino %1 handiagoa; 2.162.100 eurokoa, hain zuzen ere. Administrazioak eta hirigintzarako jasoko dute diru gehien, eta gainontzeko sail guztien aurrekontuak gora egin duen arren, kulturak %22,58ko jaitziera izan du joan den urtearekin alderatuta.

Aurrekontuaren %7 inbertsioetara bideratuko du Udalak, eta umeentzako parkeak egiteko lanetan eta nekazaritzako bideen konponketetan inbertituko dute gehien.

Administrazioa: 736.700

Hirigintza: 634.150

Kultura: 357.350

Gizartegintza: 380.350

Nekazaritza: 53.600

## AURREKONTUAK 2012: AGINTARIEN AHOTAN



### **“Aurrekontua Elgoibarko Udalaren obligazio, betebeharrak eta aukerak egokitu da”**

#### GOBERNUAN

Legegintzaldi honen hasieran, gobernuak osatze aldera edota lankidetzara bultzatze aldera, hiru baldintza eskatu genituen: egonkortasuna, herria antolatzearen plan orokorra (HAPO) bultzatzea eta Pilarreko egoitza bultzatzea. Baldintza horiek, oinarritzat jotzen ditugu 2012ko aurrekontuan eta baita azertze fasean dagoen Legealdi Planean ere.

2012ko aurrekontua osatzeko 2011ko exekuzioa hartu da oinarritzat. Gastu arruntei dagokionez, sarrera arruntak baino baxuagoak izateaz gain, 300.000 euroko aurrekia lortzea izan da helburua, inbertsioetara bideratzeko zorpetzera jo gabe. Horretarako, Udal departamentuei 2011ko itxiera aurreikuspenetik abiatuta 2012rako gastu arruntetan %10eko jaitsiera aplikatzea eskatu zitzaion. Nekez, baina lortu da. 2012ko aurrezki garbia, sarrera eta gastu arrunten arteko diferentzia, 323.103 eurokoa izatea lortu da. Sarreraren aldetik, aldagai garrantzitsuena Udal Finantzaketarako Foru Fondoak da, aurrekontu osoaren erdia suposatzen duena, 6.206.000 euro. Pasa den urrian Foru Fondoaren 2011ko itxiera aurreikuspena %8,48 negatiboa izango zela jakinarazi zitzaigun. Egun hauetan jakin dugu aurreikuspen horiek ez direla beteko eta dezente txarrera egin dutela. 2011ko likidazioa %12,7 negatiboa izango da. Elgoibarko Udalak 802.000 euro bueltatu behar dizkio Diputazioari. Egoera honen aurrean, EAJK

eta PSE-EEK Gipuzkoako Batzar Nagusietan eta hainbat udalaren likidazio negatiboaren itzulketa geroratzeko eskaerak eta mozioak aurkeztu dituzte. Bilduk, Gipuzkoako Foru Aldundia gobernatzen duen koalizioak, gaur arte ez du ezer esan.

Bestalde, 2012ko Foru Fondoaren aurrekontua 2011ko itxiera aurreikuspenean oinarritu zenez, argi dago puztuta dagoela, ez dela beteko, eta hemendik urte batera berriz ziurgabetasun egoera baten aurrean egongo garela. Foru Aldundiak emandako ildoak jarraitzea behartuta gaude, bera baita zerga itunduen kudeaketaren eskuduna eta foru fondoak zerga itunduetan udalaren duten partaidetza da. Hala eta guztiz ere, aurrekontu hau Elgoibarko Udalaren obligazio, betebeharrak eta aukerak egokitu da.

Bestalde, Bilduk eta Alderdi Popularrak emendakinek aurkeztu dituzte. Bilduk Pilarreko egoitza, lan teknikoak eta kargu publikoen soldatak jaitea proposatu du, guretzat onartezinak direnak. Pilarreko proiektua nahitaezkoa da. Gainera, EAJK foru aurrekontuei aurkezturiko emendakinarekin bat gatzat. Emendakinen ondorioz Bilduk gobernatzen duen Aldundiak Pilarrerako 100.000 euroko partida bat txertatu du. Hala, Elgoibarko Udalak Aldundiarekin hartutako konpromisoa beteko du, eraiki gabeko orubea ematea.

Aldiz Alderdi Popularrak proposatutako partiden hazkundeak onargarriak izan dira gure ikuspuntutik. Bere emendakinek Bilduk aurkeztutako emendakinek batzuen lerroan doaz: berdintasuna, gazteria, kultura, gizarte politika... Beraz, Bilduren emendakinek partzialki aurrekontuan islatuak izan dira.



### **“Aldea dago onartu denetik onargarria den aurrekontura”**

#### OPOSIZIOAN

Joan den zapatuan horrela zioten Kursaalaren bildutako Bildu eta Aralarreko alderdietako hautetsiek: “Gauzak errotik aldatzen saiatuko gara, lau herrialdeak baturiko dituen eremu burujabe bat eraikitzeko, lan harremanetarako euskal esparrua egikaritzeko, sektore publikoa eta gizarte zerbitzuak sendotzeko eta zerga sistema bidezkoago bat egiteko».

Bildu Elgoibarko ere tokiko-esparrutik ari gara lanean, herrien, langileen eta orohar herritarren oinarritzko eskubideak ardatz izango dituen sistema osatu nahian.

Hori gogoan izan dugu 2012ko udal aurrekontuak lantzerakoan. Aurrekontuak zenbakiz betetako zerrenda bukaezinak baino zerbait gehiago dira. Aurrekontuetan islatzen da herriaren geroa, eta horretan parte-hartze zuzena izan beharko lukete herritarrek. Horrela izan dadin ez da inongo aukerarik eskaintzen Udaletik eta horra hor gure lehen desadostasuna.

EAJKren jardunarekin herritarrok ez dugu aurrekontuen informaziorik ezta horretan parte hartzeko aukerarik izan. Udalaren ardura



da herritarren parte-hartzea sustatzeko baliabideak jartzea. Baldintza egokiak izan ez arren Bilduk Herri Batzarrak antolatu ditu Kultur Etxean eta Altzolan eta bost lan talde jarri ditu martxan, herritarren ekarpenak jasotzeko. Bidaia hasi besterik ez dugu egin.


Baina gure desadostasuna ez da aurrekontuak osatzeko erara mugatzen. EAJ, PSE-EE eta PPK onartutako aurrekontuak orain artekoen jarraipena baino ez dira, eta egungo egoerak herritarrengan sortutako premiei erantzuteko balio ez dutenak. Horregatik auzeratu genuen 25 proposamen zehatz biltzen dituen osoko zuzenketa (<http://bildu.info/elgoibar> helbidean eskuragarri).

EAJ-PSE-EE eta PPren gehiengoak nagusitu da, baina bestelako eredu baten alde egingo duten aurrekontuen bila gure konpromisoari eusten diogu. Aldea dagoelako onartu denetik onargarria den aurrekontura. Horrelakoa behar luke aurrekontuak:

kalitatezko sistema publikoan oinarritutakoa, gardentasunean eta parte-hartzearen inguruan antolatutakoa, Euskal Herria eraikitzearen alde lan egingo duena, gehien sufritzen duten sektoreen beharrei erantzungo diena, Euskal Herria euskalduna berrosatzeko ahalgin guztiak egingo dituena, jasangarritasunean eta garapen orekatuan oinarritutako herri garapena sustatuko duena, herriko eragileekiko elkarlanean oinarritutako kultura politika ahalbideratuko duena, hezkuntza komunitate sendo eta egituratua duena, Udaleko jarduerak guztiak parekidetasunaren ikuspegitik jorratuko dituena, nazioarteko kooperazioa ahaztuko ez duena. Aurten ez dugu ideia horiek guztiak Elgoibarko aurrekontuetan txertatzea lortu, baina ez dugu etsi. Aurrerantz ere, ideia horiek barnebidetuko dituen herri-kudeaketa nahi dugulako, lanean jarraituko dugu. Hurrengo urteko zenbakiek esan dezaten aurten esaten ez duten hori dena.

## **“PPk aurrekontuak babestu ditu herritarren alde daukan borondatearen erakusgarri”**

### OPOSIZIOAN



Gure alderdiak elgoibartarren alde elkarlanean aritzeko eta lanerako daukan borondatearen erakusgarri, gobernuan egon ez arren, PPK aurrekontuak babestu ditu, aurrekontuak

emendatutako emendakinek onartu ostean. Horri lotuta esan nahi nuke Elgoibarko PP, inongo konplexurik gabe, hala nahi duen guztiarekin elkarlanean lan egiteko prest dagoela. Gure atea zabalik dago edonorentzat.

PPk egindako emendakinei esker, PSE-EE eta EAJren hasierako intentzioa zuzendu da. Zenbait sailerako ekintzak, eta dirulaguntzak murrizteko euren intentzioaren aurrean, PPren emendakinei esker, %3ko igoera izan dute joan den urtearekin alderatuta; zergek izan duten igoera bera. PPren batu eta ekarpenak egin dituzten elkarteak eskerrak eman nahi dizkiet.

Aurrekontuak hobetzeko ez ezik, udal-gobernuaren jardun politikoa hobetzeko ere lan egingo du PPK eta nire emendakinek onartu izanak erakusten du posible dela hori. Etxeberria jaunak eta EAJk emendakinek onartzeko eta aurrekontuak hobetzeko erakutsitako borondatea ere eskertu nahi dut.

Etxeberria jaunak hemen izango nau gure industriaren eta ekintzaileen aldeko apustu bat egin nahi badu. Gure merkataritzaren alde, gure prestakuntzaren, kulturaren eta euskararen alde egin nahi badu, eta gizarte zerbitzuak hobetzearen alde apus-

tu egitea nahi badu, gure gazteen eta parekidetasunaren alde egin nahi badu, deitu nazala eta hor egongo da PP.

Kirol Patronatuaren kudeaketaren inguruko hausnarketa sarkon bat egin behar luke Etxeberria jaunak. Gero eta Udalaren diru-ekarpen handiagoa behar du Patronatuak, eta diru horrek beste udal-behar batzuk beteko lituzke. Patronatua ahal denik eta autofinantzatua izatearen aldeko apustua egiten du PPK.

Eta San Lazaroren inguruan, Pilar proiektuarekin gertatzen denaren zain, gure nagusiak hobeto egotearen aldeko eta egunetik egunera zerbitzu gehiago eta hobeak izatearen aldeko apustua egin behar dugu. Etxeberria jaunaren apustua ere hori izatea espero dut eta ni bere alboan izango nau.

Alabaina, bere apustua Elgoibarko PSOEn berdina bada, gizarte zerbitzuen arduradun dena, zergak igotzen dituena, Eguneko zentroko partida edo etxez-etxe zerbitzuarena jeisten dituen, edo gizarte larrialdietarako laguntzak izozten dituena, ez dezala PPren kontaktu. PP ez dago horretarako.

Eta bukatuko dut, gizarte zerbitzuetako arduradun den Suarez jaunari hau esanez: Bilduri Pilarraren gaineko ezer aurpegiaritu aurretik, edo PPri “herriarentzako lan egiteko” lezioak eman aurretik, izan dadila bera lehena eredugarri jokatzeko. Jarrera hori ordea, ez da berria Elgoibarko sozialisten artean; beti jokatu izan dute lezio beraren arabera: “egin ezazu nik diodana, ez nik egiten dudana”. Elgoibartarrek jakin egin behar dute, horren ezkeriarra eta soziala den Elgoibarko PSOEn apustua gizarte zerbitzuak murriztea izan zela eta dela gaur egun ere.

## Erretratu zaharra



1964

Aste honetako erretratu zaharra Aurelio Valencianoren argazki artxibokoa da eta bere alaba Oianek ekarri digu. 1964ko otsailaren 4an ateratako erretratua da, Santa Ageda bezpera egunean, hain zuzen ere. Garai hartan Baltasar elkartearen geratzen ziren entseguak egiteko, eta ondoren, eliza atarian biltzen ziren guztiak. Kalez kale jarduten zuten eskean, atez ate, orduan atezak zabalik egoten ziren-eta. Harategietan haragia eskatzen zuten, eta dendetan babarrunak eta beste hainbat gauza ematen zizkieten, eta batutako guztiarekin afari ederra egiten omen zuten gauean. Bihar ere irtengo dira hainbat talde kopla kantari. Etxegiña taldekoak kalean arituko dira kantuan, eta Elgoibarko Izarrako kideak baserri baserri ibiliko dira. Santa Agedaren ome-nezko doinuak izango dira, beraz, bihar Elgoibarko kale zein baserri auzoetan.

*Mundu bat nahi beste aukera*

# ATE IREKIAK


- Goi Eskola Politeknikoa**
- Arrasate OTSAILAK 4** larunbata, 10:30
- Enpresagintza Fakultatea**
- Oñati OTSAILAK 18** larunbata, 11:00
- Irun OTSAILAK 23** osteguna, 18:00
- Gastronomia Zientzien Fakultatea**
- Donostia OTSAILAK 16** osteguna, 18:00



# Lehen euskal herritarra izatear izan da Iñigo Lariz Altitoy mendi eski proban

Elgoibarko 11 lagunek hartu dute parte

Joan zen asteburuan jokatu zen Altitoy mendi eski proba Luz Saint Sauverreko mendietan, eta Iñigo Larizek eskura izan zuen garaipena. Arrasateko Mikel Navarrokerekin osatu zuen bikotea elgoibartarrak, eta txapela etxera ekartzea zuten helburu. Zapatuko etapan aurre aurrean ibili ziren uneoro, baina bukaeran bi postu galdu zituzten. Domekan, bestalde, ibilbidea laburtu egin zuten antolatzaileek eguraldi txarra egiten zuelako, eta ziztu bizian irten ziren bi eskiatzaileak Luz Saint Sauverreko plazatik, eta gora iritsi orduko sailkapen nagusiko 10 lehenengoen artean zegoen bikotea. Jaitsieran, baina, Lariz erori egin zen eta elurpean galdu zuen eskia. Gutxiatik egin zion ihes euskaldunen arteko garaipenak. Eñaut Izagirrek ere lan ona egin zuen, eta B ibilbidean bosgarrena izan zen euskadunen artean. Elgoibartik 11 lagunek hartu zuten parte. A ibilbidean Iñi-



go Lariz, Arkaitz Irureta, Iker Leonardo eta Joseba Elustondo jardun ziren. B ibilbidean Eñaut Izagirre, Aitor eta Nagore Salaberria, Amaia Oñederra, Aitor Romera, Manex San Martin eta Amagoia Zubizarreta.

## Markel Kerexetak seniorretan debutatu du xakean

Markel Kerexeta xakelariak 11 urterekin egin du debuta senior mailan. Mekatar Elgoibar taldeak Gipuzkoako txapelketa jokatzeko dihardu, eta Kerexeta da klubak senior mailan inoiz izan duen jokalaririk gazteena. Billabonaren kontra jokatu zuten joan den asteburuan, eta Markelek hiru ordu eta hamabost minutuko partida jokatu zuen. Berdinketa lortzear egon zen xakelari elgoibartarra, baina garaipena lortzeko arriskatu egin zuen eta azkenean, partida galdu zuen. Tomas Conde eta David Garciak ere galdu egin zuten, beraz, Juan Manuel Navarro izan zen irabazi zuen bakarra.

## Mendi segurtasuneko tailerrak antolatu ditu Morkaikok

Mendian seguru eta behar den moduan ibiltzeko gomendioak emateko ikastaro bi antolatu ditu Morkaiko mendizale taldeak. Datorren eguenean izango da lehenengoa eta Euskal Mendizale Federazioko medikuntza aholkularia den Zuriñe Foronda izango da hizlaria. Kirol medikuntzan lizentziatua izateaz gain, Euskal Mendizaleen Sorospen Taldeko partaidea ere bada Foronda. Otsailaren 16an izango da hurrengo hitzaldia, eta biak ere, 18:30ean izango dira, Kultur Etxeko hitzaldi gelan lehenengoa eta sotoan bigarrena. Morkaikok izena eman beharra dago, parte hartu ahal izateko.

## EMAITZAK

### FUTBOLA

Cultural 2 – Haundi 1 (3. maila)  
Elgoibar 1 – Tolosa 2 (Ohorezko erreg.)  
Elgoibar 1 – Aloña Mendi 3 (Ohorezko jub.)  
Elgoibar 2 – Urola 0 (Kad. B)  
Eibar 0 – Elgoibar 1 (Ohorezko inf.)  
Elgoibar 3 – Sanse 4 (Inf. txiki)  
Usurbil 1 – Elgoibar 4 (Neskak)

### ESKU PILOTA

Lagunak 5 – Hernani 22 (Kad.)  
Lagunak 4 – Añorga 22 (Jub.)  
Arrasate 22 – Lagunak 20 (Nag.)  
Arrasate 22 – Lagunak 2 (Nag.)

### ARETO FUTBOLA

Zierbana 8 – Concepto Egile 1 (2B maila)  
King Kong 5 – Zarautz 5 (Jub.)

### ESKUBALOIA

Alkorta Elg. 29 – Hondarribi 25 (Sen. mut.)  
Muskiz Elg. 14 – Tecnifuelle 37 (Sen. nesk.)  
Usurbil 28 – Lauko 22 (Jub. nesk.)  
Usurbil 22 – IMH 27 (Kad. nesk.)  
Ereintza 34 – Astigarraga Elg. 15 (Kad. nesk.)  
Pulpo 12 – Bankoa Elg. 27 (Inf. mut.)  
Eibar 15 – Txarriduna Elg. 22 (Inf. mut.)  
Pulpo 13 – Ikus Elg. 25 (Inf. nesk.)  
Aloña Mendi 10 – Aterpe Elg. 32 (Inf. nesk.)

## AGENDA

### ARETO FUTBOLA (Kiroldegian)

Zapatua, 4  
16:00 Concepto Egile – Orkoien (2B maila)

### FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 8  
10:00 Elgoibar – Anaitasuna (Ohorezko inf.)  
12:00 Elgoibar – Zarautz (Kad. A)  
16:30 Haundi – Santutxu (3. maila)  
Domeka, 5  
12:00 Elgoibar – Touring (Neskak)

### ESKUBALOIA (Kiroldegian)

Zapatua, 4  
11:15 Txarriduna Elg. – Pulpo (Inf. mut.)  
12:30 Bankoa Elg. – Pulpo (Inf. mut.)  
18:00 Tecnifuelle Elg. – Urdaibai (Sen. nesk.)  
Domeka, 5  
10:00 Aterpe Elg. – Pulpo (Inf. nesk.)  
11:30 Grupo Eibar Elg. – Eskubaloia C (Inf. mut.)

### PILOTA

Domeka, 5  
11:00 Lagunak – Zestoa (Nag.)  
11:45 Lagunak – Atxurbide (Pala)

# ALEX MENDIZABAL

MUSIKARIA

**Sinuosek gonbidatuta, Elgoibarren izango da etzi Alex Mendizabal musikari donostiarra. Erromatik etorri berria da Euskal Herrira, eta bost kontzertu emango ditu datozen egunetan, horietako bat, gurean, Kultur Etxeko sotoan (19:00).**

**“Musikak harreman handia eta estua izan du manipulazioarekin”**



**‘Ataturren ehun adar eta tximisten banda’ deitu diozu etzi Elgoibarko Kultur Etxeko sotoan emango duzun kontzertuari. Bitxia izena. Zer da zure musika entzutera doanak espero behar duena?**

Bitxia da izena, bai. Ehun instrumentu edo soinua egiteko ehun tramankulu txiki erabiltzea pentsatuta neukan, eta izenburu hori, Ataturren kontu hori, Iban Urizarri hartutako ideia da. Igandean erabiliko ditudan tramankulu horietako bakoitza globo bati lotuta egongo da, eta horietako bakoitzak iturritxo moduko bat izango du goian, haizeari pasatzen uzteko batzuetan, eta haizea mozteko besteetan. Ehun instrumentuekin egindako kontzertua izango da. Kontzertu laburra, baina entretenigarria.

**Zure kontzertura doanak jakin behar du ezohiko instrumentuekin aritzen den musikaria zarela zu. Erabili dituzu puxikak, egur za-**

**tiak, hariak... Musika edozerekin eta edonon egin daiteke?**

Bai, ikaragarri gustatzen zait gainera soinu tresnak sortzea. Eta bai, jakina. Musika edozerekin egin daiteke, eta edonon. Areago, musika ez dago zertan egin behar. Musika beti hor dago. Guk ezer egin gabe ere, nahi beste musika dagoelako gure inguruan; jaso besterik ez dugu egin behar; jaso eta sentitu. Behin poema txiki bat idatzi nuen, eta halaxe esaten nuen: musika ederra da ur azpian eta musikariak lo daudenean.

**Isiltasuna ez den guztia da beraz musika.**

Bai, baina isiltasuna bera ere musika da, musika ezin baita ulertu isiltasunik gabe. Izan ere, soinu batek beti estaltzen edo isilarazten du beste soinu bat. Hala, musika zenbat eta altuago egon, orduan eta soinu gehiago isilaraziko ditu. Diskoteka batera sartzen garenean, esate baterako, hainbat eta hainbat soi-

nu ezin izaten ditugu entzun, eta berdin gela itxi batean tronboia jotzen hasten garenean, gerta daitekeelako tronboi horren hotsak erlojuaren *tik-tak*-a isilaraztea. Horregatik diot musika eta isiltasuna eskutik doazela beti; batak bestea eskatzen duela ezinbestean.

**Munduan zehar hamaika ibili egin dituzu zuk zeuk sortutako musika tresnekin. Zein da hor zehar topatu duzun soinu tresnarik harrigarriena?**

Behin beste kazetari batek antzeko galdera bat egin zidan, eta pentsatzen jarrita zera erantzun nion: eraso militarretarako eta torturararako erabiltzen diren instrumentu akustikoeek harritu eta larritu izan nautela gehien.

**Bistan da modu berezian bizi duzula musika. Zer da zuretzako?**

Ez daukat oso argi, gauza asko eta ezberdinak izan daitezkeelako. Soinuarekin, formarekin, denborarekin eta kontzientziarekin ze-

rikusia duen zerbait dela esango nuke, nolabait esatearren. Nik desio gisa ulertzen dut musika.

### **Musikaren zeregin nagusia sentimenduak sortzea dela esan izan da sari. Zer diozu zuk?**

Ez nago batere ados. Sentimenduak sortzea? Ez, ez. Hori ezin da izan musikaren zeregin nagusia. Entzuleengan sentimenduak sortu baino gehiago sentimendu horren kontzientzia hartzen lagundu behar du musikak. Musikarekin sentimendu jakin bat sortzea nahikoa erraza da. Telenobela bat entzuten dugu, eta musika entzutearekin batera berehala jabetzen gara halakoa ona dela, bestea txarra dela, honek gorrotoa diola hari, tentsioa dagoela edota beste hari zer edo zer txarra gertatuko zaiola. Urte askoan landu den kontua da hori, eta beraz nahiko erraza da nolabait, bereziki musika lehenengo planoan ez dagoenean. Hau da, irudiekin edo beste zerbaitekin lagunduta ematen denean, musikak badu nolabait esatearren manipulatzeko gaitasun bat. Zuk diozun moduan musikaren zeregin nagusia sentimenduak sortzea dela uste badugu, zalantzarik gabe film komertzialetako musika da musikarik onena.

### **Hortaz, musikak kontrolerako berezko gaitasuna duela esan daiteke?**

Bai, zalantzarik gabe. Musikak harreman handia eta estua izan du manipulazioarekin mendeetan zehar, eta kultura asko eta askotan. Ikaragarritzko ahalmena du musikak. Musika beste plano batean iristen da pertsonengana. Askok ez dute askorik pentsatzen musika entzutean, baina ezinbestean jasozten dute. Eta lehen esan dizudan bezala, hori oso argi ikusten da film komertzialetan, musika ikusleen sentimenduak kontrolatzeko pentsatuta dagoelako. Dela gorrotoa, beldurra edo poza...berdin dit zer, baina sentimentu horiek oharkabean jasotzen ditu ikusleak. Nik urte asko daramatzat hortik aldentzen, teknika hori errazegia dela iruditzen zaidalako.

### **Hortik aldentzen saiatzen zarela diozu, baina sentimenduak sortzea ez al da musikaren berezko ezaugarri bat?**

Jakina, beti gertatzen da kontzertu bat eman eta norbait etortzea esanez, "aizu, ba niri honek sekulako egonezina sortu dit" edo "aizu, sekulako poza sentitu dut" edo beste edozer, baina hori ez da nik bilatzen dudana zerbait. Horretarako teknika aspaldi ikasi nuen, baina

iritsi zen egun bat, ia nahi gabe, entzuleen sentimenduak kontrolatzen ari nintzela konaturatu nintzena, eta askatzeko behar bat sentitu nuena. Orduetik, hori saihesten saiatzen naiz.

### **Ez duzu diskorik grabatu inoiz. Ez zara nonbait enlatatutako musika zalea.**

Mania pertsonal antzeko bat izan diet beti diskoei. Gainera, nik egiten dudana musika beste mota batekoa da. Niri asko interesatzen zait, esate baterako, musikak eta bereziki pertzepzioak espazioarekin duen harremana. Ez da gauza bera, adibidez, zerbaiti kolpetxo bat ematea edo kolpetxo baten bidez distantzia batera soinutxo bat sortzea. Eta, jakina, hori guztia bi bafetatik entzutea nahikoa motza iruditzen zait. Horregatik iruditzen zait diskoak ez duela ondo jasotzen nik egiten dudana lana.

### **Zer egiten zaizu aberasgarriena?**

Musikak desioarekin daukan harremana agian. Desioa kontrolatzen ez dugun zerbait da niretzako: orain behar duguna, eta hemendik bost minutura sobera duguna. Musika urgentzia da niretzako. Zerbait esateko edo adierazteko urgentzia bat. Hurrengo bost egunetan bost kontzertu emango ditut Euskal Herrian, bost kontzertu ezberdin, eta bostetan nik une honetan sentitzen dudana adierazten saiatuko naiz, musika bidez.

### **Desioa. Kontrolatu ezin daitekeen zerbait. Gezurra dirudi gaur egungo gizartean kontrola ezin daitezkeen gauzak egotea oraindik.**

*Kar-kar.* Bai, bai, hala da. Gaur egun dena da kontrola, baina desioa bada uneoro aldatzen ari den zerbait, kontrol horretatik ihesi dabilen zerbait.

### **Epe laburrerako baduzu kontatu daitekeen proiekturen bat esku artean?**

Momento honetan hauxe, eta bada nahikoa.

Baina, bai, proiektuak badira, bai. Asko idatzi dut azkeneko urteetan eta hori guztia jaso eta poesia liburu bat-edo argitaratu nahiko nuke. Gauza asko darabilt buruan, baina baliteke horixe izatea epe motzean proiekturik handiena.

### **Donostiarra zara izatez, baina Erroman bizi zara. Erromak ba omen du kolore berezi bat. Eta musikarik? Badu Erromak musika jakinik?**

Erroman bizi naiz ni, noizbait "r" bat galdu zuen hirian. Erroman bizi garenok ez baitugu Erroma esaten, Erroma baizik. Gainera, euskaraz erakargarriago ere bada Erroma, beste adiera bat ere har dezakeelako "ero" horrekin. Baina Erromari musika bat jarri behar harko banio opera esango nuke. Hainbat gauza ezberdin. Hitza, musika, forma, irudia... dena bereganatua duen zerbait delako Erroma. Erroma ez baita izan hiri bat bakarrik; gehiago izan da ideia bat, ideia totalizante bat, bereganatzaile bat, eta hori musikara eramanda... bada, bai, operarekin lotuko nuke nik.

### **Eta Euskal Herria?**

Buff, lan zaila jarri didazu. Badago AMM izeneko blog bat eta musika horixe jarriko nioke: AMM, Euskal Muturreko Musika.

### **Zerbait esan nahi al diezu igandean entzule izango dituzunei?**

Kontzertuak mereziko duela eta gauza berezi bat entzun nahi duenarentzat aukera polita izango dela. Hori, eta oso-oso pozik nagoela Ibanek [Urizar] eginiko gonbidapenarekin. Ni emigrante bat naiz, eta Euskal Herrira etortzea gauza berezia da niretzat.

**Ainara Argoitia**





## San Juan Bosko eguna eta IMH eguna ospatu zituzten institutueta ikasleek joan den barixakuan

Batxilergoko ikasleek Gaztetxean antolatutako jaiak eman zion bukaera egunari

**K**rosarekin hasi zen eguna institutuko ikasleentzat eta argazki rallyarekin IMHkoentzat. Baina hortik aurrera, denerako astia izan zuten batzuek zein besteek. Goitiberak, IMHko herri kirolak, patata tortila lehiaketak, edo ikasleen bazkariak izan ziren, besteak beste, egunean zehar ez aspertzeko arrazoia.

Arratsalde partera, Gaztetxean jarraitu zuen festak. Batxilergoko ikasleek ikasbidairako dirua lortzeko kontzertuak eta gau osoko jaiak antolatu zuten.



### Dantzari elgoibartarrak dotore Soinu Zahar Txapelketan



**J**oan zen zapatuan hasi zen Lezon Euskadiko Soinu Zahar Txapelketa. Inazio Bereziartua musika eta dantza eskolako hiru ikaslek parte hartu zuten lehen jardunaldian eta emaitza onak eskuratu zituzten gainera. Nerea Sasiainek lortutako hirugarren postua nabarmendu behar da.

Dantzari gaztetxoek, 7 eta 11 urte artekoak, hasi ziren lehian Lezoko Gesala auditorioan jokatu zen estreinako jardun-

naldian. Elgoibartik joandako hiru dantzariak maila bikaina erakutsi zutela adierazi dute beraien irakasleek. Nerea Sasiain hirugarren postuan sailkatu zen, hamargarren postuan Miriam Ferreiro eta hamahirugarren postuan Amaia Astigarraga. Euskadiko txapelketan 35 neskek izena eman badute ere, hmeztzigarren dantzarik parte hartu zuten Lezoko saioan.

#### 11 eta 15 urte artekoak

B Saileko dantzariak, hau da, 11 eta 15 urte artekoak, otsailaren 25ean eta 26an jokatu dute ligaxkako lehen jardunaldia Beasainen. Maialen Loiola, Alaitz Egaña, Leire Astigarraga eta Andrea Arregi elgoibartarrek parte hartuko dute bertan. Maila honetan 53 neskek parte hartuko dute, tartean sei elgoibartarrek. Eneko Gonzalezek eta Julen Guillok Aurreku Txapelketan parte hartuko dute.

Elgoibarko aurreku eta Soinu Zahar txapelketa martxoaren 31n eta apirilaren 1ean izango da.

# Glu Glu taldearen 'La lechuga' antzezlanak ikusteko aukera izango da gaur zortzi, hilaren 10ean, Herriko Antzokian

Muturreko egoeretan erakutsi ohi dugun alderdirik ilunena erakusten du obrak

**G**lu Glu taldekoak Elgoibarren izango dira gaur zortzi, *La lechuga* azken lana aurkezten. Komediaren eta dramaren fusio gisa aurkeztu dute obra, gai gogor baten alde komikoa bilatu nahi duen obratzat. Transmittitu nahi duten mezua argia da: muturreko egoera batean, pertsona guztiok norberaren alderdirik ilunena atera dezakegula erakustea. Hala, jendea noraino iritsi daitekeen ikusten da antzezlanean, baina dena umorez. Komedia honetan Gorka Aginagalde, Gurutze Beitia, Mari Cruz Melgosa, Galder Perez eta Gabriel Ocina ariko dira, denak ere aski ezagunak elgoibartarrentzat. 20:30ean hasiko da antzezlanak, eta sarrerak takilan erosi ahal izango dira egunean bertan, baina aurrez eskuratzeko aukera ere izango da Servikutxa, Internet ([www.kutxa.es](http://www.kutxa.es)) edo telefono bidez (943 001 200).



## Drama, umore ukituz

Ikuslea "hunkitzeko" obra dela adierazi du Gorka Aginagaldek Radio Euskadiri egindako adierazpenetan. Elkarri gorroto dioten familia baten tira-birak kontatzen ditu antzezlanak. Aitak egoera begetatiboan eman ditu bederatzi urte, eta alaba batek

eta haren senarrak zaindu dute denbora guztian. Aitaren urtebetetzean, gaixoaren beste semeak zaintzea proposatuko dio senarrak. Baina inork ez du nahi izango aita zaindu. Hala, Aginagaldek uste du egoera hori "oso gertukoa" egingo zaiela ikusleei, eta ondorioz ez direla aspertuko.

## Gizonezkoen rol aldaketei buruzko argazki erakusketa zabalduko du gaur Ongarrik

Bikote heterosexualen arteko harremanetan gizonezkoek izan duten rol aldaketen inguruko erakusketa antolatu du Ongarri Argazki Taldeak, Elgoibarko Udalaren laguntzarekin. Azken urteotan gizartean aurrerapauso batzuk izan dira, eta emakumeek euren lekua egin dute orain arte "gizonezkoenak" ziren esparruetan. Horrek, baina, "noraezean" eta "galduta" laga ditu gizonezko asko, eta hain zuzen ere, horixe da erakusketa honen erakutsi nahi duena. Hala, emakumezkoen arropak jantzitako gizonezkoen erretratuekin osatu dute erakusketa.

Gaur zabalduko dute, eta hilaren 18ra arte egongo da ikusteko aukera, Elgoibarko Kultur Etxean, 18:30etik 20:30era. Domeketan itxita egongo da.



## 'Eskola kirola, baliabide hezitzaile gisa' izenburuko hitzaldia, martitzenean

Luix Mari Zulaika unibertsitateko irakasleak *Eskola kirola, baliabide hezitzaile gisa* izenburuko hitzaldia eskainiko du martitzenean, hilaren 7an, 18:30ean, Elgoibarko Kultur Etxean. Herri Eskola eta Institutuko guraso elkarteek antolatu dute hitzaldia.

## Iban Urizarrek jarri dio musika 'Zorroak' laburmetraiarri

Iban Urizarrek konposatu du Lander Garro eta Antton Aldekoaren *Zorroak* izenburuko laburmetraiko musika. Asian, Afrikan eta Ozeanian entzute handiko sariak jaso dituzte euskaraz eginiko lan honekin. Laburmetraia arrakasta hori filmean agertzen diren gai unibertsalei zor zaiela uste dute zuzendariak.

**LANA**

**ESKAERA**

- Emakumea pertsona nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **630 372 882**
- Emakumea lan bila. Pertsona nagusiak zaintzen edo garbiketa lanetan arituko nintzateke, interna edo orduka. ☎ **633 150 376**
- Emakumeak interna edo orduka egingo luke lana. Esperientzia eta erreferentzia onak. ☎ **650 152 866**
- Zerbitzari moduan lan egingo nuke; esperientzia daukat. ☎ **659 030 193**
- Etxeko lanak eta garbiketarako egiten lan egingo nuke. ☎ **618 058 757**
- Emakumea edozein lan egiteko prest. Goizez. ☎ **635 313 375**
- Emakumea lanerako prest. Urteak zein edadetuak zaintzeko edo gau solteak ospitalean pasatzeko prest. Egun erdiz. Garbiketa lanak ere egiten ditut. ☎ **618 052 967**
- Haurrak zein nagusiak zainduz lan egingo nuke, orduka. Garbiketa lanak ere egiten ditut. ☎ **676 858 210 / 943 257 217**
- Ingeles klase partikularrak ematen ditut, etxez etxe. ☎ **943 744 062**
- Emakumea garbiketa lanak egin edo nagusiak zaintzeko prest. Euskalduna. ☎ **626 490 986**
- Nagusiak zainduko nituzke. Euskalduna naiz. Urte askotako esperientzia daukat. ☎ **685 729 790**
- Emakumea garbiketa lanak egin edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **638 527 489**
- Emakumea garbiketa lanak egin edo nagusiak edo gaixoak zaintzeko prest. Asteaz gehar. ☎ **669 311 385 / 683 554 245**

- Ingeleseko klaseak ematen dira. Eskolako laguntza eta titulazio ofizialak lortzeko klaseak. Adin guztiak. ☎ **652 763 264**
- Emakumea nagusiak edo gaixoak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest. Orduka edo interna. ☎ **638 338 816**
- Emakumea nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest. Orduka. ☎ **690 925 929**
- LH, DBH eta Batxilergoko klaseak ematen ditut. Talde txikiak. ☎ **696 295 098**
- Emakumea nagusiak edo gaixoak zaintzeko prest, etxean edo ospitalean. Orduka edo interna. ☎ **645 557 191**
- Emakumea lanerako prest, orduka edo interna. ☎ **608 474 923**
- Emakumea lanerako prest. Orduka. Mantenu lanak, nagusiak zaintzen, zerbitzari... ☎ **609 148 861**
- Gizonezkoa zerbitzari lanak egiteko prest. Esperientziaduna. ☎ **692 332 871**
- Emakumea garbiketa lanak egin edo nagusiak zaintzeko prest. Orduka. ☎ **638 338 816**

- Emakumeak pisua hartuko luke alokairuan. Hiru logelakoa. ☎ **699 813 826**
- Merkataritzarako edo biltegi moduan erabiltzeko 35 m<sup>2</sup>ko lokala alokairuan. Komuna dauka. ☎ **609 360 627**

**BESTELAKOAK**

- Herri-Gain elkartearen hiru bazkide berrientzako lekua dago. Interesatuak jarri daitezela gurekin harremanetan. ☎ **607 877 225**

**KINTOAK**

- 1969an jaiotako Aita Agirreko ikasle ohien bazkaria otsailaren 25ean. 50 euro sartu behar dira 3035 0007 26 0071030029 kontuan izen abizenekin otsailaren 22a baino lehen. ☎ **667 711 226 / 618 384 303**

**ETXEBIZITZAK**

**ALOKAIRUA**

- Etxea alokatzen dut Santa Klara auzoan. 5. pisuan, 2 logela, eguzkitsua, igogailuarekin eta altzariekin. ☎ **645 048 110**
- Hiru pertsonako familiarentzako etxea alokatuko genuke. ☎ **618 058 757**
- Pisua behar dut alokairuan Elgoibarren. ☎ **620 664 454**
- Hiru logelatako etxea hartuko nuke alokairuan. ☎ **635 313 375**

**Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira.**

- Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: **18€** (alokairua) - **20€** (salmenta). Autoak saltzea: **15€**. Bestelakoak: **8€**. Iragarkiari erretratua jarriz gero, **6€ gehiago** ordaindu behar dira.

- **BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:** Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: **12€** (alokairua) - **15€** (salmenta). Autoak saltzea: **12€**. Bestelakoak: **6€**. Iragarkiari erretratua jarriz gero, **5€ gehiago** ordaindu behar dira.

ESKERTZA

**BONIFACIO GALLARDO RODRIGUEZ**

2012ko urtarrilaren 28an hil zen.

Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.







• Zorionak, **Markel**, hirlaren 30ean 3 urte egin zenituelako. Familiako-en eta bereziki Noraren partez.



• Zorionak, **Ane**, otsailaren 7an 4 urte egingo dituzulako. Muxu pila bat etxeko denon partez.




• Zorionak, **June**, asteazkenean 8 urte bete zenituelako. Muxu handi bat, etxeko partez. Asko maite zaitugu.



• Zorionak zure 14. urtebetetzean, bihotz bihotzez. Familiakoen eta Victor eta Maite gurasoen partez.



• Zorionak, **Nahia**, igandean 6 urte beteko dituzulako. Patxo handi-handi bat familiako guztien partez.




• Ixa, ixa... Azkenian, bai, 3 urte! Zorionak eta patxuak etxekuen partez, bereziki, Martxelen partez.



• Zorionak, **Arhane**, zure 9. urtebetetzean. Muxu handi-handi bat etxeko partez, bereziki, Goiatz, Sugar eta Intzaren partez.



• Zorionak, **Nagore**, zure urtebetetzean. Zortzi muxu potolo familiako guztien partez, bereziki, Galderren partez. Ondo pasa!



• Zorionak, **Ane eta Eneko**, atzo zuen lehen-dabiziko urtea bete zenutelako. Muxu potolo bana, etxeko guztien partez.

**AGURREN ATALEKO PREZIOAK EGUNERATU EGIN DITUGU**

Erretratu bakarreko agurra 4€, argazki bikoitza 6€, hirukoitza 8€. hiru lagunetik gorako taldeak: 12 €.

**ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK**

Erretratu bakarreko agurra 3 €, argazki bikoitza 5€, hirukoitza: 7€. hiru lagunetik gorako taldeak: 10 €.

Argazkiak **eguzten eguerdia** baino lehen ekarri behar dira **BARRENEKO** bulegora, 12:00ak baino lehen, edo [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com) e-postara bidali.

**Jarri ezazu zure publizitatea**

**[barren.publi@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.com)**

**B**

**BARREN  
astekarian  
943 744 112**



## 4 zapatua

### *Santa Ageda bezpera*

**8:15 Mendaroko santa eskea**  
Udaletxe aurrean batuko dira santa eskekoak, kantura irteko.

**9:00 Etxegiña taldekoen santa eskea**

Kalez kale jardungo dute Etxegiña taldekoek santa eskean.

**10:00 Santa eskea baserri baserri**

Elgoibarko Izarrak antolatuta, baserrietan egingo dute santa eskea.

### *Ate irekiak*

**11:00** Herri Eskolako ate

irekien eguna  
Hitzaldiak, jolasak eta bazkaria egingo dituzte, besteak beste. Herri Eskolan.

**11:00** Ingeniaritza eskolako ate irekiak  
IMHn.

### *Kizola*

**9:00** Ate irekiak

Wing Tsun eskolak ate irekiak antolatu ditu, kizola ezagutzera emateko. Kiroldegian.

## 5 domeka

### *Musika*

**19:00** Alex Mendizabalen kontzertua

Sinuosek antolatuta, Kultur Etxeko sotoan.

## 7 martitzena

### *Hitzaldia*

**19:00** Gurasoen formaziorako jardunaldiak

Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

## 9 eguna

### *Hitzaldia*

**18:30** Mendi segurtasuneko tailerra

Morkaikok antolatuta, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

## 10 barixakua

### *Antzerkia*

**20:00** Glu-Glu taldearen 'La lechuga'

Herriko Antzokian.



Otsailaren 3an,  
**Santa Agedako kopia txapelketa eta merendola ludotekan,**  
17:30ean hasita.



Otsailaren 3an, ostirala,  
**San Blas opil goxo-goxuak**  
egingo ditugu!  
Animatu!

### OKINDEGIA

5 domeka **FOTERO**

### BOTIKA ORDUTEGIAK

**9:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00**

### GUARDIAK

#### Egunez

**9:00 - 22:00**

#### Gauetz

**22:00 - 9:00**

3	Garitaonandia	Garitaonandia
4	Etxeberria	Etxeberria
5	Etxeberria	Etxeberria
6	Fernandez	Etxeberria
7	Yudego	Yudego
8	Zabaleta	Garitaonandia
9	Barrenetxea	Barrenetxea

#### Fernandez

Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro)  
Tel: 943 756 142

#### Ibañez

Rekalde, 1 (Sorraluze)  
Tel: 943 751 638

#### Zabaleta

Kalebarren, 9 (Sorraluze)  
Tel: 943 751 384

## ZINEA

### «Misión imposible: Protocolo fantasma»

2, barixakua: 22:15  
4, zapatua: 19:00/22:15  
5, domeka: 19:00  
6, astelehena: 21:30

### «El gato con botas»

5, domeka: 16:30

### «Nader y Simin, una separación» Ongarri zinekluba

2, eguna: 21:30



«Misión imposible» Zuz.: Brad Bird. EEBB, 2011. 133 min. Akzioa. Aktoreak: Tom Cruise, Jeremy Renner, Paula Patton. Ehan Hunt agenteari Kremlinaren kontrako atentatu terrorista leporatuko diote, eta kargutik kenduko dute. Agentek bere agentziaren izen ona berreskuratzeko eta atentatu gehiago egon ez daitezen lan egin beharko du, dauzkan baliabide urriekin.

«Nader y Simin, una separación» Zuz.: Asghar Farhadi. Iran, 2011. 123 min. Drama. Aktoreak: Peyman Moaadi, Leila Hatami, Sareh Bayat. Nader eta Simin bikoteak, alaba hartuta, Iran uzteko erabakia hartuko dute, bizimodu hobearen bila. Azken unean Siminek atzera egingo du, eta emazteak dibortzioa eskatuko dio. Arazoak bata bestearen atzetik etorriko dira.


**konfiantzan**  
**IKASTOLA**  
**en confianza**

aurre-matrikulazioa  
 urtarrilaren 30etik  
 otsailaren 10era



[www.elgoibarikastola.net](http://www.elgoibarikastola.net)

943 744441

[elgoibar@ikastola.net](mailto:elgoibar@ikastola.net)

Pedro Miguel Urruzuno Kooperatiba



HERRI ONURAKO  
KOOPERATIBA



# ZEZEN-BIDE



AUTO ESKOLA

Autorako B agiri teorikoa **18 urte bete baino lehen** eskura dezakezu!

**Ordenagailu bidez** teoria ikasteko gela berria!



## ORDUTEGIA

10:00etatik-12:30era

15:00etatik-20:30era

- Euskarazko eta gaztelarazko klaseak
- Credikutxarekin ordaintzeko erraztasunak

**5 EGUNEKO  
TEORIKAKO  
IKASTARO  
TRINKOAK**

## LEKUALDAKETA

San Frantzisko, 52 behea

Tel. 943 742 720

20870 ELGOIBAR



# emugi!

elgoibarko  
mugikortasun  
iraunkorra



## EMUGI. Ibilgailuak zentzuz erabiltzea

**GAUR EGUN 19 BAZKIDEK PARTEKATZEN DITUGU EMUGI*k* ESKAINTZEN DIZKIGUN BALIABIDEAK. EGIN ZAITEZ BAZKIDE, ETA ZURE BEHARREN ARABERA ERRESERBA EZAZU. ANIMA ZAITEZ!**



**M. AXUN LARRAÑAGA**  
MEKA Lanbide Eskolako Zuzendaria

*“Ekimen interesgarria, berritzailea eta etorkizun handikoa iruditu zitzaidan hasieratik Elgoibarko Udalak bultzaturiko EMUGI proiektua. Bazkide izatearekin, eta kotxe elektrikoak alokairuan erabiltzearekin, Meka Lanbide Eskolak aurrezteaz aparte, iraunkortasunari laguntzen diolakoan gaude.”*



**ALFREDO ETXEBERRIA**  
Elgoibarko Alkatea

*“Partekatzea, aurreztea eta ingurumenarekiko jarrera arduratsua izatea dira EMUGI proiektuak Udalari eskaintzen dizkion onuretako batzuk.”*



**PREZIOA: 0,25 € 15 minutuko**  
**BAZKIDEENTZAKO URTEKO KUOTA: 25 €**



**PREZIOA: 0,20 € 5 minutuko**  
**BAZKIDEENTZAKO URTEKO KUOTA: 50 €**



Elgoibar  
**BERDEA**

